

Félix Zubiaga

ZURE ARGI KLISKAK



Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

ZURE ARGÍ KLISKAK

FELIX ZUBIAGA

ZURE ARGI
KLISKAK

ARRESE Y BEITIA SARIA, 1986
Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

I

UMEZARO

Ez hitzik, ez deirik: gaua zan,
ilunak ez antzik ezenik,
sorkari eitenak ez eukan
ez aita, ez ama abizenik.

Zurruburru susmuralako,
irakin sorgor soinu bako,
hutsune sakon, tulunbio:
mezuren bat auskalo.

Gauak orduan izarra
edatu eban altzora.

© FELIX ZUBIAGA
© BIZKAIKO AURREZKI KUTXA
España'ko Enparantza, 1
BILBAO 48001
ISBN: 84-505-6963-X
D. L.: BI-2147-87
Imprimatzaile: Grafinorte, S.A.
Camino de Ibarsusi, 1- 2.º
48004 BILBAO

SUBILARO

Azken txinpartaz zela enborra,
subila amatau ainean,
erregarrien azpi-zaborra,
itxaropena hautsetan,
zurtz gengoza ez hara-nora,
argiak sutu ginduzan.

Subilaro gautean,
Eguberri xirrintan,
gure itxaropena
luzatu zenduan.

Gizakiongan ba zan aiena
eguzkia joatean,
errerik zela egurra dena
negute latz zigorrea:
labur genkusan bizi-epea
sutondoia itzaltzean.

Subilaro gautean,
Eguberri xirrintan
otzakil gengoza,
biztu ginduzuzan.

Etxeko sua, kezka munduan
sugarritz zendun berbiztu.
urte barriak urte zaharraren
urtenbidea bilatu,
lehengo ipuina argi barritan
sutondoari azaldu.

Subilaro gautean,
Eguberri xirrintan
bizigarria oparo
lortu gendun zeugan.

JENTILZARO

Izarra gautean zan seinale:
zaharren zaharraz jentilak
itxirik eukazan bi begiak.

Izarra gautean zan seinale:
"begiak edegi eistazuez,
susmorik ea hartzen dautsodanetz".

Jaio da Kismi, ene,
jaio da Kismi!
Jaurti nagizue
lezera ni!

Izarra gautean zan seinale:
semeeek habeaz jentilari
begiak eutsuezan idegi.

Izarra gautean zan seinale:
jentilak halatan begiratz
izarra ei eban begiztatu.

Jaio da Kismi, ene,
jaio da Kismi!
Jaurti negizue
lezera ni!

Izarra gautean zan seinale:
izarra distiraz mezu-urtika,
jentila liluraz haren aurka.

Izarra gautean zan seinale:
semeeek harturik gurasoa
amildu ei eben gizajoa.

Jaio da Kismi, ne,
jaio da Kismi!
Jaurti nagizue
lezera ni.

EZ JAT EGITEN BEGIKO

ustegabeko argia
ez behingoan belarriko
ezentzun melodia.

Keinu urtika ortzitik
ei zatoz nire bidera;
zelan abestu neinke nik
horren goi-tesiturara?

Ez dot hegorik besotan;
bide narrasok itzirik,
zelan nahi dozu jarraiki
zaidazan izar bidetan?

Ene izar gaubelari,
ez neinteke orain jagi:
logurak nauka ohean,
itxaron argi artean.

EGUZKI,
ni itxu, zu dirdai,
Eguzki,
ni gaua, zu oskorri.

APURKA apurka, Eguzki,
apurka eta hurruti,
ez ekain bete turrustan
indarrok nigan irauli.

Bildur naz zure errainuen
ezpatak zulatu naien,
edo ta goitik orokor
nitaz jabetu daitezten.

Poliki-polit, Eguzki,
zu hortik ta ni hemendi,
keinu bat ausaz dot nahiko,
molda zakidaz begiko.

Bildur naz zure begiak,
epai naien justiziaz,
balore dana galdurik
nire egia erdiak.

Bildur naz zure labeak
opil samurren zaleak,
erre nagien zeharo
zorionsuen mahairako.

ONENZARO

Argia eta begia
batabesteen zoria:
begia dot nik lekuko,
zeu nor zaitut ordea?

--Ilun apalen altzotik
sortu naz izar argia,
amaren sabel narotik
jaio mezua-mesia.

Izar eta itzal,
zeu ete zaitut
oskorri goiztar?

--Itxuak ikus dagike
geroztik itzal artean
argi-ilunen aurkatze
burrukan parte hartzean.

Izar eta itzal,
zeu ete zaitut
lehinuru garbal?

--Argia zabalduarren,
iluna bere bidean
dabiltzu argi-lapurren
barruko zokondoetan.

Izar eta itzal,
zeu ete zaitut
aizkide mazal?

--Ez gal astirik bereizten
argi-ilunen ezbaiak:
ekintza onak hor dozuz
argi seinale zehatzak.

Izar eta itzal,
zeu ete zaitut
gidari lehial?

GAU ARREBAREN BEGIAK

liluratuta naukee
keinaten dausten mezua
ulertzeke.

Izar distira labanok
mareatu egin naue
ikuspuntua galazoz
nora gabe.

Izar begi irabiatuok
irradakoa jo ta jo,
euren dantzara lot-nahi
nauelako.

Gau ames izar lagunok
ez naue baketan izten,
euren zeruko larrera
joan naiten.

Dana itzirik noake
izarren lagun bidazti,
neure gurpilen ardatza
huts igarriz.

OLENTZARO

Olentzarok bidean
galdu dau farola,
lilura trukagarriz
ardaoa edanala.

Ole-ai Olentzaro,
mezulari keldo!
Mozkorra arrapatzen da
edanez gero.

Faroldun barriona
guretzat henkarren;
asko kaltetu gozak
hire mozkorrarren.

Ole-ai Olentzaro,
mozkor arranpalo;
mezuz txepelto baino
ardaotan bero.

"Jesus Salbatzailea
jaio dela hemen?"
Mozkor horrek hobeto
adierazi heinken.

Ole-ai Olentzaro,
morroi aldrebesto;
saietan zuhur baino,
urunetan ero.

GAUERDIA ai zan
edo egunsentian
eguzkien Eguzkia
agertu zenean.

Edurra ete zan
ala euri-jasan
amagandiko Semea
edatu zenean?

Hodeietan nonbait
izarretan ausaz
Mariagan Jaungoikoa
umegin zenean.

Euritea zela?
Lehorte zitela?
Lehortearen lehorraz
egarritua zan.

Edurtea zela,
izoztea axola?
Izoztearen izotzaz
ia hildurik zan.

Izarretan zela
gauaren gaubela?

Gauerdia zan
Eguzki dibinala
agertu zenean.

KANDELARIO

Kandelario lario
haitzari ura dario,
haitzari ura dario eta
metxari negar txirrio.

Haitza ez bedi ahortu
ez metxa dena kiskaldu
argizaria kandleari
Kandelarioz daritzu.

Izotza urtu da haitzetan
argizaria metxetan,
Eguzki jaunak urtuazo dauz
suaz Kandelariotan.

Kandelario lario
haitzari ura dario,
kandleari negar argiak,
atsoari murmurio.

Igarle Neguk tenploan
dauka Haurtxoa besotan;
Jaunak errukiz dakus mundua
azken itxaropenetan.

Kandelario lario,
argiaren misterio:
"Umea hau da jentilen argi
t'herriaren salbazio."

IGARLEA

"Ilunaldia igaro da eta
benetako argia agertu da:
anaiari gorroto dautsonak
ilunetan darrai,
ustez argitan dagola,
bidegaldu dabil,
ilunak itxu dauko-ta."

BA ZAKUST orain, ba zakust,
bidertzean nengon itxu
ta bidetik zentozala
errukiz hartu ninduzun.

Eskerrak mosuz begiak,
agintzariz belarriak
edegi zeunstazala,
bataio argia zertan den
ezin nekiken bestela.

Ba zakust orain, ba zakust,
txuaz lokatza ein zendun,
jaiotzez itxu nintzen hau
egin bait-zendun argidun.

IGARLEA

"Beragan egon bizia
bait-zan lurtarron argia,
ilunbetatik ateraz
argi gaikezan berbea.

Geurera etorri zenean
ezezagun egin jakun,
jainko-seme nortasuna
euskula dohan opatu."

LEIHO ETA LEIHAR
distiren deiadar,
loak astintzen diatork
sogile goiztiar.

Leiho eta leihar
kristaletik zehar,
egunsentia diatork
atea jotzehir.

Leiho eta leihar,
begiok iratzar,
ikusmena argirik
bisitaria onar.

Leiho eta leihar
ekia su ta gar,
argiz jantzi deuk soina
gogoa bezainbat.

Leiho eta leihar
argi bidenabar,
begion erantzunaz
distiraren dardar.

Leiho eta leihar
gardenaren behar;
hakio urten bidera
argiari zangar.

EGUZKI,
zu izpi, ni begi,
Eguzki,
ni keldo, zu zoli,
Eguzki,
ni lotan, zu ernai.

II

EKAIZTE

Iluna ez da mendetzen
argiaren erreinura,
ilunak argi jokuez
sortu daroa lilura.

Ilunei esker argiak
argiakoak distirak
aurkakoarren:
zein gehiagoka bi-biak
ta nor esanen
gurenda noren eskuak
jasoko dauen?

OILARITEAN

Kukurruku!
Gaua gautarrentzat,
argiagaz kontu!

Oilarra entzutean
Akelarrean
akerrak amatau dauz
argi gorriak.

Kukurruku!
Amaitu da gaupasa,
eguna dagerku.

Gaukarien gau-festa
azkenetan da,
sorginen zarraparra
amaitzen ia.

Kukurruku!
Gaua gautarrentzat,
etxerako ordu!

Agur, Aker jauna,
barikura, arte.
Agur, ta isilekoa
zintzoro gorde.

Kukurruku!
Gaua gautarrentzat,
argiari kuku.

Albakoa baino lehen
lorratzak garbi,
erratzak atostean
konturaz itzi.

Kukurruku!
Gaua joan da eta
argia itxartu.

OSTOTSAK

Trumilka, zalapart, trumoitsu
dantzut iluna,
zorrozki, oskargi, orrastu
barriz argia.

Tanborez, turutaz, burrundan
jo nau ilunak,
disdiska, txistuka, zirrintan
ohar argiak,

Zurruburru, aukera-maukeran
ziriz ilunak,
doinu zoli ustekabez, jarein
bide argiak.

Multsoan, nastean, mukurru
dakust iluna,
balatu, bristadan, zehaztu
barriz argia.

Ostopatzen, sareketan, tranpaz
diabilt iluna,
iratzarle, bidelagun sotil
barriz argia.

Bekainez, bekaitzez, betilun
murriz iluna,
atsegin, ortzargi, txeratsu,
barrez argia.

Narrastan, itzaltsu, errenka
diagert iluna,
hegadan, betargiz, aideka
bizkor argia.

ILUNDE

Iluna dator trumoitsu
argi guztia jan nahirik,
hodei baltzetan zeru-lur
bere mendean estaliz.

Iluna dator trumoitsu,
ekaitza dator zemaiez,
mamau itzalgarriaren
bekainak gaukaz bildurtu.

Trumoiak bere sarradan
ba dau argizko keinurik,
laster zigorraz bristadan
itziko gaitu itxurik.

Tximist-urtika dabilen
hodei bildurgarri hori
egia ezkutatzearren
guzur-egia dirudi.

Guzur gehienak funtzean
ba dauke egia-izpirik
eta tximistak hodeian
zaintzail keinua dageri.

Guzur keinuaz zaintzailak
sobera agertu daikigu
ostetik egi-guzurraz
nahi gaituela loxindu.

Tximistak dira hodeian
irri-lausengak haren:
kontu iluna argitan,
trumoia dator ostean.

ARGIA DISDIZ
GOIETAN
ILUNA BARRIZ
TROKETAN.

Tontorrak maite argiak,
luzeagoak halan be
dira tontorren itzalak:
arratsaldean kerizpe
goizez argitu erpinak
itzalen menpe daukabez.

ARGIA DAGOEN TOKIAN

geriza,
geriza dagoen tokian,
iluna,
iluna dagoen tokian
nastea,
nastea dagoen tokian
sarea,
sarea dagoen tokian
katea,
katea dagoen tokian,
nekea,
nekea dagoen tokian
balbea.

Egia dagoen tokian
ezbaia,
ezbaia dagoen tokian
marmarra,
marmarra dagoen tokian
guzurra,
guzurra dagoen tokian
laidoa,
laidoa dagoen tokian
apentza,
apentza dagoen tokian
gorroto,
gorroto dagoen tokian
herio.

AIMARIETAN

Arratsbeheran lurruna legez,
baltza dario lurrari,
Aimarietan ilun-salatzen
kanpaeak datoz hagaitik.

Din-dan-dan
iluntzean.

"Aimarietakoak entzutean
etxera, umeok, behingoan,
lezietako denganinoak
urteten hasten dira-ta."

Din-dan-dan-dan,
Aimarietan.

"Ama, han Garabietan
ba dagoz lezetxo bi;
zelatan naiteke joan
orain iturrira ni?"

Din-dan-dan
iluntzean?

"Eutsi, laztana, gurutze honi,
eroan zeugaz kolkoan
ta ez daukazu zergaitik izan
deabruaren bildurrik."

Din-dan-dan-dan
Aimarietan.

"Aimaritakoak entzutean,
umeok, laster etxera;
etxeen biran ta ezkutuka
ez ibili hortik zehar,
hirugarren bueltarako
ezpabe deabruak..."

Din-dan-dan

ez ibilteko iluntzean.

ARTIZAR

Argi-lapur bekaizti, Luzifer,
heure maltzurkeriaz dot urten
argi izpi zoroa espilatzen.

Asmo berezi,
ekintza alper,
hi, Luzifer.

Eguzkia aina, harrokeriarren,
uste hendun hintzala izanen
zeruetako izarretan ederren.

Asmo berezi
ekintza alper,
oi Luzifer.

Zelan jausi hintzan, oi Artizar.
oilaritean horren goiztiar,
lehen argi, orain su ta gar.

Asmo berezi
ekintza alper,
bai Luzifer.

Gauak oratu hindun berala,
goitik behera eratzi tanbala,
zerurik hiretzat han ez zala.

Asmo berezi,
ekintza laper,
heu, Luzifer.

Baina ba dok heure ipurtargi
t'uda arminez keinu dagik
hegoerre xomorro inpernutik.

Asmo berezi,
ekintza laper
han Luzifer

Ipurtargi horretan nabari
buztan itxusia dot agiri,
edertasuna bera dindirri.

Asmo berezi,
ekintza alper,
jo, Luzifer.

NEKALDIA

"Lapur baten aurka lez,
ezpata ta makilez,
urten zatxataze.
Egunero zuekin
Jaunaren etxean nengola,
ez zeunsten eskurik ezarri.

Baina haxe da zuen ordua,
ilunpekoen indarra."

HUTSUNETAN

Ez da dana izar espazioan
ez eta lore larrean,
lore arte diren hutsune ilunak
ornidu begiz bedarrak.

Zu argi ta ni argi
-artean dago iluna-
bion argiak bat ez dagien
ilunak dagin burruka!
Bion arteko iluna zer den
argia beste gurea!

"Zu hor ta ni hemen kontu"
egina dogu legea:
bat izan baino lehenago dogu
maite independentzia,
besteen sarradak ez gaizan hartu
bildurrak daukan hesia.

EGUZKI,
zu bero, ni oskil,
Eguzki,
ni negu, zu ekain.

URIUNETAN

Uriko gauaren argitan
ahaztu doa
jadanik izarren distira,
artesiaren argia berak
eragotsiz
izarren ohiko ederra
eta hagaitik
ez gaitu lilurutzen
mezu horrek goitatik.
Izarrak kliska
eta disdiz
izarrak deika
goitik dabilz.

Izarrak biran
gau erdian
maiteen lehian
bailebiltzan.
Izar lehiaka,
bat eta bi,
izarrak kliska
begiz begi.

Izar keinuak
galdu ziran
neon argiak
isiotzean.
Hareen mezuak
urrutiko,
hemengoanak
narraskilo.

Uriko argi totelak
izarren esnea
dauskue zurrupa,
hagaitik doguz motelak
barne-begiak.

ITZAL

Itzala dabil
norbere jarrai,

Itzalak darraitso eguzkiari,
itzalak darraisku noranahi hara,
itzala diabilku salaketari,
itzalak jan baleu itzala bera!

Itzala diabilku
jarraiki gertu.

Itzala arrastan kerizpe makur,
bera edo geu gara gaizkile lapur,
ostetik diatorku edo aurrez-aur.

Itzala diabilku
jarraiki gertu.

Kainen errua jasarriz ete?
Orban baltz hori garbi daiteke?
Itzela da itzala, baltz ezinbeste,
ilunpe-semea gautearen gaute.

Itzala dabil
norbere jarrai,
inguma norbera
ingura nahiz.

GRISAK maite ditu nire pentzelak,
ez bero, ez otzak, baizik epelak,
ez argi, ez ilun, begi motelak.

Urdisken einean maite nik grisak,
ez-nabari diren margo arreak,
sotil direlako, ez nabarmenak.

Ikusmen argia balitz nirea,
argiro nenkuske gauzen aldea,
baina urdin dot begiradea.

Lainoak marrasten daust ingurua,
Eguzki dagerkit erdi estaldua,
hagaitik urdinska nire zerua,

EGUZKI,
ni ilun, zu argi,
Eguzki,
zu margo, ni zurbil,
Eguzki,
ni motel, zu bizi.

ARPEGI HORREN EDERRA

bailerakus arteak,
nola eguzki berbera
espiluzko distirak,
amaren antza leukake
alabaren begiak.

Ona onaren espilu,
gaitza gaitzaren katilu.

Orduan bai artelana
jatorrizko artelan
amatiar eredua
balagerku soilean,
egia agertzen dalarik
ikuskitzen betean.

Ona onaren espilu,
gaitza gaitzaren katilu.

Argi henduke artea
on bahendu begia,
ilundu bajak ordea,
iluna dokek idea:
itxumustuan hoake
erraturik bidea.

Ona onaren espilu,
gaitza gaitzaren katilu.

EGUZKI,
zu apain, ni zirtzil,
Eguzki,
ni ospel, zu begi,
Eguzki,
ni arru, zu mendi.

MENDI HORTATIK begiratu izan banendu,
zehatzako nengiken aztertu...

Baina susmo-erratu nagotzu bidean,
asmamen keak harro pusturik hurrean,
zelan ezpabe jainko txikiak lurrean
mendi jaso hortatik begizta eikean?

Ken eistazu
begion lausoa
edei leiho
nire ikuspuntua.

Zeure argitan edan izan banendu,
ur kutsatuek ez ninduen ikutuko.

Urak zikindu dira, errekak pozoitu,
garbi beharrez urok nauela baltzitu,
uharretan non aurki begien espilu?

Iturri goi hortatik edan ahal banendu!

Ken eistazu
begion lausoa
garden biur
nire espilua.

Ikuspuntu,
espilu,
eredu...

Iturriari urak garden bezelatsu,
edertasun guztia zeuri badarizu,
ikus daidan argiro edertien pozu,
ikuspuntu hobera jaso nagikezu,
ikuspuntu, espilu, ederti, eredu.

DESEREDUAN OSTERA

argi dot ilun
ilun dot argi,
eskerrak hitzaren naste
katramilari.

Hitza gizatuaz
ein zela aragi?
Gaurko berbakerak
putsa dirudi:
hitza desgizatu
zirikalari.

Hitza den hutsa,
hutsa den hotsa!
Berbadun ez da,
ez berbakorik,
nahasmena ospakizun
ta bi argizari
ohikune harroz biztu
jainko aizunari,
argi dala-ta iluna
t'iluna argi.

ILUN-SEME ZUHURRAGO,

argi-seme baino:
usoak baizen xalo,
sugeak baizen zuhur
izan beharko.

Ez dozu azal kontu
-barne giro zihur-
argi laztanez batzuk
besteak betilun,
argi-semeen aldean
harek diren maltzur!

Ez izan sugearen,
ez uso urretratu,
bien alde onenaz
zaitekez konpondu.

EGUZKI,

ni lizun, zu garbi,
Eguzki,
ni ezkor, zu baiki,
Eguzki,
ni medar, zu bikain.

ILUNTZE bakoitzak
ba dau egunsenti,
iluna hemen denean
nonon daiten argi,
nola berbiztea
herio jarraiki.

Iluntze bakoitzak
ba dau egunsenti,
aukerea dot hortxe:
ilunez estalpe
edo argiz jantzi.

Iluntze bakoitzak
ba dau egunsenti:
batzuk argituala,
besteak iluntzi.

EGUZKI,
ni belu, zu goizik,
Eguzki,
zu bizkor, ni hilik.
Eguzki,
ni tarraz, zu garai.

ILETA,
argi-ilunen baiezta:
argiak negarretan
bizia gerta,
ilunak hobietan
erresta.

Amatau jako bizia,
hilik datza,
begietako argia
itzali zan,
ilunpetako lezea
dau jabetzat.

Leze bidea argietan
lau kandela
inguru dagoz erretan;
ken daiela
hilaren lau aldetatik
ken itzala.

Bidelari negartia,
argizari,
mutxitu dago metxea,
oi bidazti,
urtu-jario koipea
masailetik.

PASIONEA

Argi-semea eta
argi bera hiltean,
eguzkik arpegia
-lurrikaraz lurdia-
ezkutatu eban.

Burruka izugarria
hantxe gertatu zan,
Bizitza ta Erio.
alkarren arerio,
bat erasotean.

Bizitza gurutzatu,
hila izan zenean,
erori zan Erio
t'ez dauka hagaitio
nausitzeko indar.

Bizitza nausitu zan
tinko gurutzean,
ilunpeko koraina,
pekatuen ordaina,
kitua izan bait-zan.

ARAOAK

Argi kontra habil, iluna,
argi-itzaltzen dok maina
-alperrik izango dok baina-
argiak hartuko deuk gaina.

Ta kontra habilkonarren, ilun,
egian ezarriz bi guzur,
denporak guzurtatuko hau,
gaua egiztatzean egun.

Argiaren kontra habilke
heure izenari jarraike,
ene ilun, gauaren fabrike,
argiak hartuko hau kуйke.

Ez deuk balioko orduan
heure amarruen marroak,
gauzak begien aurrean,
amaitu zoazen jokoak.

Argi kontra habilke, ilun,
baina argia izanen txapeldun.

III

EGUARTE

"Erantzi daiguzan bada
ilunpeko egitadak
eta jantzi argi-armak."

Armatu beraz egiaz,
egik burrukan,
asmatu zuzenbidea
su-armak ukaz.

ALBAKOAN

Tan-tan,
albakoan...

Itxar zaitetze, umeok
eguna da-eta;
jagi zaitetze behingoan.

Tan-tan,
albakoan...

Ez zaiezela oratu
alperkerian
eguzkiak gailurretan.

Tan-tan,
albakoan...

Ez egon lotan hortxe,
eguzkia ohera
etor dakizuen arte!

Tan-tan,
albakoan...

Jagi zaitetze lotiok!
Igurtzi begiak,
eta ohar Ortzik
sortu miraria.

Tan-tan,
albakoan...

EGUZKI SAINDU

Hilobiko harri, Eguzki saindu,
ilunpeak argi zeure errainuz.

Egunero hiltzen
zaren, Eguzki,
egunero bizten
zaite ahalegin.

Sortalderantz adi
nire etxea,
zaren jainko-begi
herio-ostea.

Nire hilobiak
eguzki-lore,
kardulatz oriak,
usain dotore.

Hilobiko harri Eguzki saindu,
ilunpeak argi zeure errainuz.

Lurrera beharrak
ez zaitu galtzen,
barne arpegia
ez daitela ustel.

Ilunpeak oinez
igaro dozuz,
lezetik gu onez
atera gozuz.

Hilobiko harri,
Eguzki saindu,
bizitzako oinarri
egoki jaku.

ORTZEGUN

Ekaitz ostean argia barrez,
arpei biribil dagerku,
ibai ertzean ura edaten
ta zubiginen ostarku.

Ekaitza joan t'euri samurrak
argi jasoen bustian,
Eguzki bera begiontzako
ikusgarria egin zan.

Zubia dager ibairik ibai,
zubi bi dira alkarren gain,
ibar mendiak daukez loturik
bitsuon harremon zain.

Zazpi margoak, zazpi zubitan,
beste zazpiez hamalau,
argi bakarrak foko askotan
banan distira eiten dau.

Argi guztia margope batz
erakus-gura zikotza:
eritsi denak ikur bereaz
itxu-gurea den motxa!

Danok daukagu ostarkupean
bake-bizi esperantza:
demokrazia atergunean
Egilearen agintza.

Egunez behintzat ez gagizala
menderatu ilun baltzak,
itxumustuan erratuala
zurruburruaz ekaitzak.

INGUMA TA GAUARGI

biak dabildaz jasarri,
Inguma erpe larderiz,
Gauargi argi-nahirik

Gaueko jeinu Ingumak
lokartueri
arnasa dautse eragozten
samea ertziz.

Hoakit hortik, Inguma,
hi aldiz,
jin hakitala, Gauargi.

Ez nauk hire bildur,
Inguma,
Jinkoa t'andre Maria
hartzen t'iat lagun.
zeruan izar,
lurrean belar,
koston hare,
hek guziek kondatu arte
ez hadiela niganat ager.

Hoakit hortik, Inguma,
hi aldiz,
jin hakitala, Gauargi.

Gauargi gauez nerekin
zuhaitzez-zuhaitz jarraiki,
ez jat aldentzen albotik,
nahiz ta makila erakutsi,
beti jasarriz dabiltik.

Hoakit hortik, Inguma,
hi aldiz,
jin hakitala, Gauargi.

"iGauik egunik
ez dinat unik
hireki ez baniz, Argia!"

Programatu nagiken
heure argitara,
roboten gurariak
ez naien azpira.

Heure aburuetan
programa naiken,
dohan emoten daustan
libertadearren.

Programa eistazanan
bai buru-bihotzak,
argitu ahal naian
heuretar jakintzak.

ARGIA,
eguzkiz jantzia,
Argia,
maitale garbia,
Argia,
ze jakituria!

ORTZI

Nire hauziak ez dira zuen hauziak,
ez nire arazoak zuen tikimikiak,
ustel salatzen zaitue zuen usteak
eta zauri bihurtzen maiz on egin-nahiak.

Sakonago ikusten
dozu begioz, Jauna;
esker zuri hobenen
parkamena.

Zuen bihotzondoak ikusten dodaz nik,
ez dago estaldu niretzat sekretorik
t'azalkeiaz juzgatzen dozuelarik
egin zeinke ezelan zuzenbiderik?

Argiago dakusu
goi horretatik, Jauna,
esker zuri hobenen
parkamena.

Kontu zuon zentzunoi oker epaitzeaz,
ez juzga inor grinaz edo ezjakinaz,
bada neurtu dagizuen neurri bardinaz
zurt epaituko zaituet, epaile bait-naz.

Zuzenago, bai zuzen
epaitzen dozu, Jauna,
esker zuri hobenen
parkamena.

ARGI, beti dakarstan
goizik eguna,
heure begi ederren
itxaropena.

Nahiz ta nik ez itxaron
hire deiari,
agindu ordurako
jarrai hatorkit.

Argi, horregaitino
gorde don hitza,
mindu hinduenarren
nire saputzak.

Lainok lauso balegi
ikusbidea,
hurrundu behar nahirik
bion artea,

edo gandu-urtika
alde banendi,
kuku-jolas ezkuta
hire arpegitik,

bilatuko ninduken
gordelekuan,
t'ilunpetik askatu
eztalakoan.

LEHIAN

Argia mendirik mendi,
keinua begirik begi,
ta nire gogoa hire
galdez goizetik.

Hodeiak zerurik zeru,
ardurak egunik egun,
eta ni hire barrien
goiztar bezeru.

Usoak pagorik pago,
umeak txalopin-txalo,
eta ni hire leihora
begira niagon.

Loreak larrerik larre,
neskatxak barre ta barre,
eta ni hire begien
maite-asarre.

Erbiak solorik solo,
mosuak ahorik aho,
eta ni hire lehiari
maite-itxaro.

Kliskadak izarrik izar,
mezuak bidean zehiar,
eta ni hire distiren
erantzun lehial.

EKAIN

Zeure goitar endako
umeak gara izaki,
lurkoiak garenarren,
zeure leinuz jantzi.

Oi Eguzki, Eguzki,
gaur agertu ahal bazaiz!

Ekain urteburuan,
su handi inguruan
Donienak abestuz,
dantzatu dogu biran.

Oi Eguzki, Eguzki,
gaur agertu ahal bazaiz!

Mendian edo ondartzan
biluz zeuz janztearren,
Eguzki zeure orbitan
gatortzuz jarraitzaile.

Oi Eguzki, Eguzki,
gaur agertu ahal bazaiz!

Gaur egun zeu gurtzeko
ahozpezten ez bagara,
aratinik hobeto
adoratzearren da.

Oi Eguzki, Eguzki,
gaur agertu ahal bazaiz!

BESTE MAITERIK EZ DOT;

nori daikiodaz ba
opa bertsook?

Beste maiterik baneu,
laster zeunkida zihur
zurrupatuko.

Besten maite irriak
noizbehingoko
maite kantagai dira
ta zu betiko.

Zutaz ahaz baneinte,
laster barrero
edoertzok ninduke
zeuganatuko.

Zeuk josiak danengan
begira bi izartxo,
zeu ezagun zaidazan
bat dakusdaino.

GOIZ, EGUERDI T'ILUNTZEZ

jarraitzaile habilkit
oratu nahiez.

Neu sarritan berandu
iritxiarren,
gartsuago orduan
hi nire deiez.

Ostaz agur esaten
gelditzen natxan,
hire agurrei erantzun
ahal daitseidan.

Ez hatxat heu ahierkor
zeloakarren,
nahiz ta nire saputzak
bai mereziren.

Goiz, eguerdi t'iluntzez
ta pazientziz,
habilkit bat gaitezen
bihar edo etsi.

Jakematez oratu
halako baten,
heure argitan egundu
zorian baietz.

PAZKOZ

Txaloak Pazkoz
berbizuari,
eztena kendu bait-dautso
heriotzari.

Leze ilunera jaxirik
egunsentia,
hilkorrentzat dau jaritxi
bizi ilintia.

Erio-lezekoentzat
-hau mesedea!-
lortu ein dausku saritzat
berbizkundera.

Txaloak Pazkoz
berbiztuari,
nausitza kendu bait-dautso
heriotzari.

Ilunpe gengoalarik,
-oi Prometeu!-
argi suzia isioki
egin dauskuzu.

Askatasun Eguzkiak
lurra argitzean,
lur-zeruan berbiztuak
dagoz kantetan.

Txaloak Pazkoz
berbiztuari,
makila kendu bait-dautso
heriotzari.

GALAXIA BAT

Zenbat ekintza harriagarrietan
Galaxietan Ulises,
ames-zaldien beribil azkar
mundurik mundu zabilkez.

Ikusgarriak, bide barriak
asmatu gura zendukez,
itxumustuan helburua jo
helburu zein den jakinge.

Zeure buruko garauak jatzuz
mundu ezezagun sekretu,
putzuan dager goitik jausi den
ortzi bera izarratu.

Jainkoren batek zeuregan biztu
galaxien galaxia
konturatuge han daukakezu
ames eskutu itzia.

Jatxi, Ulises! Itzuli zaitzez
alper jakintza horretatik,
jainko gorde hau aztertu zeinke:
zeure burua barrutik.

GALAXIA BI

Galaxi soinu ber-bera
eratzi daue lurrera
eguzki-lore argiok
ta lurra zeruagaz dantzara
gonbidatzen gaitue biok.

Barre zantzoka hortzargi,
larre guztia da agiri,
-kolorearen kolore!-
pitxiloteok kantuz alaiki
ospakizuna daroe.

Ba zabiltaze ohiuka,
betule zuriz keinuka
larreko lore potinok,
ortzi bihurtu zelai berdezka
izarratu dozenok.

Ixo kantua emeki,
bitxidun lore kantari.

Inoren eskuz ereinge,
ugari erne zagoze
eskuak emon alkarri;
noren jairako gertau dozue
hainbeste koru kantari?

Kolkoan bertan Eguzki
daroazue ikurdi,
bere inguru begien
bitxi betulak erne, idegi
irradakoa dagien.

Pitxiloretxo kantari,
Eguzki bera dirudi.

Larrerik larre nabilke
zueuekin koru egile,
apal genteon bilera,
eztailiarren arte mahaikide,
goazen abesten zelaira.

Ixo kantua emeki,
zure mezua badakit...

Norbait da ardura txikerren
t'ari dautsogu goralpen,
udalen giroz zuekin
parte harturik, kantu barrien
doinura daigun kriskitin.

Ixo kantua emeki,
pitxiloretxo kantari,
zure mezua badakit eta
Eguzki jauna gorantzi.

EGUZKI,
ni lore, zu urrin,
Eguzki,
zu labe, ni opil,
Eguzki,
zu su, niugarri.

MUNDUKO ARGÍ

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
nire jarraian datorren inor
ilunpe ez dabil.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
zoaze eta munduan zabal
argiaren barri.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
kurtzelua ez bait-da estaltzen
erakusten baizik.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
zuen ekintzak ikusiz Aita
dagien goretsi.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
jende guztiei nire izenean
zuek erakutzi.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
ardiak otso artera legez,
zaituet bidali.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
ilun-semeak zuek baino be
zuhurrago izaki.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
zaiteze uso, zaiteze suge
alde onetatik.

Neu naz munduko argi,
zuek argimutil:
etxeko danek argi bizia
ahal daien ikusi.

EGUZKI,
zu argi, ni mutil,
Argia,
dan-dana grazia,
Eguzki,
ni ames, zu ortzi,
Argia,
amaren begia,
Eguzki,
zu aita, seme ni,
Argia,
zeruko loria,
Eguzki,
zu jainko, ni apaiz.

